



HERRIKO KONTSEILUKO ERABAKIA ORTZAIZEKO HERRIA

2024ko apirilaren 30eko bilkura

Bi mila eta hogeita lauko apirilaren hogeitahamarrean, arratseko zortziak eta erditan, Ortzaizeko Herri Biltzarra ohi bezala deitua izan-eta, legeak behartzen duen kopuruan bildu da, biltzarren ohiko lekuan, Jean-Marc OÇAFRAIN auzapeza lehendakari izanik,

Hor zirenak : CASIRIAIN Elena, CHAMALBIDE Corinne, DACHAGUER Peio, FALXA Odile, GOICOECHEA Iñaki, HEGUY Antton, IÑARRA François, IRIART Jean Claude, JORAJURIA Ramuntxo, LEKUMBERRY Xantxo, MATEO Jean François, OÇAFRAIN Jean-Marc, PERUSANSENA Elodie.

Barkatuak zirenak : AYÇAGUER Elorri, IDIART Claudine.

Bilkurako idazkari izendatua izan da : FALXA Odile.

Deialdiaren eguna : 2024ko apirilaren 26a

Afitxatze eguna : 2024ko apirilaren 26a

1. ERABAKIA: ANTOLAMENDU ETA GARAPEN IRAUNKORREKO PROIEKTUAREN NORABIDEEI BURUZKO EZTABAIDA ELKARGO AZPIKO THP-ren DISEINUREN BAITAN

(2.1 nomenklatura)

2021eko ekainaren 19ko erabakiz, Euskal Hirigune Elkargoko Batzorde Nagusiak Baxe Nafarroa Hegoaldeko Elkargo Azpiko Tokiko Hirigintza Plana (eTHP) diseinatzea agindu eta horretarako baldintzak zehaztu zituen.

Antolamendu eta Garapen Iraunkorreko Proiektua (AGIP/PADD) Frantziako Elkartasun eta Hiri Berrikuntza legetik eratorria da eta estatu hartako Hirigintza eta Bizitegi legeak moldatu zuen, horren ondotik Grenelle II izeneko legeak eta azkenik ordenantza batek. Elkargo Azpiko THP eratze prozesuaren etapa garrantzitsua da.

Frantziako Hirigintza Kodeko L.153-12 artikulua arabera, AGIP proiektua herri biltzar bakoitzean eta Euskal Hirigune Elkargoan eztabaidatu behar da, elkargoko horretako Batzorde Nagusiak erabaki baino gutxienez bi hilabete lehenago.

Baxe Nafarroa Hegoaldea egin den diagnostikoak AGIP horren eratze oinarritzko jokagaiak agerian eman ditu. AGIP horrek honakoa zehazten du:

- Antolamendu, ekipamendu, hirigintza, paisaia, naturaguneen, laborantza eremuen eta oihanen geriza, eta jarraikortasun ekologikoen zaintza edo berroneratze politiken norabide orokorrak;
- Baxe Nafarroa Hegoaldeko THPko 44 herriei buruzko norabide orokorrak honako arloetan: bizitegiak, garraioak eta mugikortasunak, energia sareak, energia

berriztagarrien garapena, komunikazio digitalen garapena, merkataritza ekipamenduak, ekonomia garapena eta aisialdiak;

- Eremuen kontsumoa eta hiriaren hedapena mugatzeko helburu zenbakidunak ere zehazten ditu;

Lan hori dugu gaur eztabaidagai. Edukia aurkibidean eta eranskinean ikus daiteke.

Euskal Hirigune Elkargoko lurralde proiektutik eratorritako 3 ardatz nagusi eta hainbat norabide adostu dira:

1. ARDATZA: Baxe Nafarroa Hegoalde erresiliente baten alde: Baliabideak zaindu

- 1. norabidea:** Baxe Nafarroa Hegoaldearen laborantza-izaera mantentzea
- 2. norabidea:** Baxe Nafarroa Hegoaldearen natura-kapitalaren zaintzea
- 3. norabidea:** Baxe Nafarroa Hegoaldearen adierazgarriak diren entitate paisajistiko handien zaintzea
- 4. norabidea:** Baxe Nafarroa Hegoaldeko lurralde osoan ur-baliabidearen zaintzea eta bermatzea

2. ARDATZA: Baxe Nafarroa Hegoalde bizi eta populatu baten alde: gure hiri eta herriak dinamizatzea, haien arteko osagarritasunak antolatuz

- 1. norabidea:** Baxe Nafarroa Hegoaldeko lurralde osoan demografia erakargarritasuna mantentzea eta ahalaz hobetzea;
- 2. norabidea:** biztanleria osoarentzako ekipamendu eta zerbitzu eskaintza onargarria bermatzea;
- 3. norabidea:** ekonomia garapen orekatu eta orotarikoa laguntzea, populazio dentsitatea emendatzen lagundu dezakeen baldintza delakoan.

3. ARDATZA: Bere garapen ereduak galdekatzen eta birbideratzen dituen Baxe Nafarroa Hegoaldeko lurralde engaiatu baten alde

- 1. norabidea:** Lur funtsen estrategia baten diseinatzea, lurralde proiektu iraunkor baten zerbitzura;
- 2. norabidea:** Antolamendu berrien kalitatea exigitzea, eta lurraldearen nortasun azkarra aldarrikatzen segitzea;
- 3. norabidea:** Lurralde osoan etxebizitza eskaintza orekatu eta orotarikoa bermatzea, mistotasun soziala eta belaunaldien artekoa sustatuz;
- 4. norabidea:** Denen mugitzeko ahalmenak hobetzea, auto indibidualaren alternatiba orori sarbidea erraztuz;
- 5. norabidea:** Ipar Euskal Herriaren erronkan parte hartzea, 2050erako energia positiboko lurralde bilakatuz;
- 6. norabidea:** Arrisku eta traben aurrean, populazioen eta ondasunen zaurgarritasuna murriztea.

AGIP aurkeztu eta gero, Auzapezak eztabaida irekitzat eman du.

AGIP-ri buruzko eztabaidan hainbat galdera eta gogoeta plazaratu dira, bereziki honako gaien inguruan: Baxe Nafarroa Hegoaldeko enplegu eta ekonomia garapen politika, populazioen harrera eta kudeaketa, etxebizitza, bizitegien trantsizioa, garraioen antolaketa, hirigintza ...

Honako erabakiak aintzat hartzen du Herri Biltzarrean AGIP-ren norabide orokorreari buruz egin den eztabaida.

Herri Biltzarrari eskatu zaio:

- Aintzat hartzea AGIP-ren norabide orokorrak aurkeztu direla eta horiei buruzko eztabaida eraman dela, osoko saioan, Baxe Nafarroa Hegoaldeko Elkargo Azpiko THPri buruz, Frantziako Hirigintza Kodeko L. 153-12 artikulua finkatu bezala;
- Adieraztea eztabaidatu den AGIP honakoari erantsia zaiola;
- Adieraztea eztabaidaren egiazkotasuna honako deliberoak formalizatzen duela;
- Erabakia legezkontasun kontrolera aurkeztuko da, eta ondotik Euskal Hirigune Elkargoko Lehendakariari, eta Herriko Etxean afixatuko da hilabete batez.

Gorago eman egun, hilabete eta urtean, presente ziren kideek erregistroa izenpetu dute. Laburpen egiaztatuaren baliokoa.

ORTZAIZEN, 2024ko apirilaren 30an,

Auzapeza,
Jean-Marc OÇAFRAIN

Betegarria bilakatu den akta,
2024/05/14an publikatu edo notifikatu ondoan,
Eta Prefeturan pausatu ondoan 2024/05/14an.